

Sutondoan Debajazz: Carme Canela Trio Kapillan zapatuan
Kale kantalian Sara Goenagarekin tabakoaz berbetan

Argipilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
120. alea, 2005eko
urriaren 28an



Foru Aldundiak 3 miloi euro
emango ditu hirigintzarako



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

SOMABE

**MAKINA BEREZIAK
LERRA AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



ROMAN GARMENDIA

Zientzia fikzioaz

Ezer aurreratu baino lehen garbi dago ezen egun bakoitzak baduela bere lana, eta ez da ona burua berotzea larregi zientzia fikzioarekin, egun bakoitzari lan gehiegi ematea izango bailitzateke, eta azkenik burua nahastea ere. Baina, izenak dioden moduan, hori argi laga eta gero, zientzia fikzioa zientzia bat da, etorkizun denaz estudioak egiten dituen. Eta etorkizuna indeterminatua denez kasu posible, disyuntibak adibidez, ugari ere ugari ikertzen ahal dira. Baina estudioak ganorazkoak izateko "verosimil-ak", egiantzekoak izan behar dira presupostuak.

Adibidez, Alien pelikulak, lehenak batez ere, badio egiari hur gehiago ematen Terminator horrek baino, zeina determinismoarekin eta profezia faltsuakin ere nolabait nahastu egiten baita, planez hitz egin balute...

Hala ere, Terminator-eko falta hori argi ikusi eta gero, bada hor imajinatzen ahal ezen bizia kosmos honetan, egotera, ez dakigu, ez dela zertan derrigorrean urez formatua izan nagusiki. Hori begien bistan dago, eta hortik interesantea da.

Zientzia fikzioa, gaur egun arte, zinean egin izan da, eta hortik badu entretenimendutik, baina baita balio dezake ikasteko, eta intelekttoa formatzeko. Nik, esaterako, argi daukat ezen a priori asmatu zuen azkena Jesus Nazarethekoa dela, azken profeta, profezien zikloa harekin amaitzen da, eta hortik aurrera futuroaz ezagutza soilik da posible zientzia fikzioaren bitartez. Beste oro futuroaren ikerketan falaziazkoa da. Nik ondorio erlazio hori egiten dut, eta egiazkoa dela ondorioztatu dut.

Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** hemen dittuzu haize epelak gurera ekarri dittuanak. **Stop.** Aldundixak emondako 3 milioiak dira barri nagusixa. **Stop.** erdixa Eibarrera ura eruateko izango bada be bada zeozer. **Stop.** ikusten da Aldundia borondatetsu dabilela. **Stop.** edo Udaleko taldiak gestiño onak egin dittuala. **Stop.** edo bixak. **Stop.** ez dakigu eta ezin esan. **Stop.** asmo ugari dago behintzat. **Stop.** kiroldegixari behingoz teilatuko ittoginak kentzeko. **Stop.** bide batez, kiroldegi gaina txukundu eta zinia konpontzeko. **Stop.** elizia konpontzeko be izango da beste diru zati bat. **Stop.** poligonoko sarrerria be hobetuko da. **Stop.** eta horrekin batera Eibarrerako urak datoz. **Stop.** sator lanak eta abar... **Stop.** danetik pixkat, ikusi egin bihar berba egin aurretik. **Stop.** eta horretara dator Aztibegia Irratia. **Stop.** irrati nazionala izateko helburuarekin. **Stop.** ez da helburu makala. **Stop.** eta herritarren borondatiaren esku dago, beste gauza asko moduan. **Stop.** ia ba!. **Stop.** eta horrekin batera Debajazz, Poltxikoko Kultur Ekitaldixak, bertso bazkarixa... **Stop.** salda badago!. **Stop.** dana bertan irakurgai. **Stop.** eta irakurtzen amaitzen dozunian... **Stop.** ez erre zigarrorik. **Stop.** hartu tila bero bero bat eta komentatu ingurukuekin herriko kontuak. **Stop.** okerren bat badago edo ezer falta bada emon toke bat... **Stop.** muxuk!!!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzguenea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta Maketazioa: Maku Oruezbail
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Joan den urriaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia Jose Juan González de Txabarri eta departamentu desberdinetako arduradun eta teknikariak Plazentziara etorri ziren Udal Gobernuako ordezkariekin biltzera.

Zorion agurrak



Nayara Zarobe Dos Santos
Azaruaren 2xan 3 urte
Zorionak!
Maitte zaittugun danon partetik.



Lander Zubizarreta Fernández
Azaruaren 19xan urtebete
Zorionak xalao!!
Lehenengu urtebetzian etxekuen partetik.

Ajenda

SEGIren kanpainaren aurkezpena
Urriaren 29an, zapatua, Iruñan
Autobusa Soraluzetik
16:00etan Gila Zubitik
"Borrokaz aske biziz!
Independentzia!
Euskal Herria margotuko dugu!"



Mirari Pérez Unamuno
Azaruaren 30ian 6 urte
Zorionak!
Etxekuen partetik.

Gutunak

“JESUS ATXA MEMORIALA” Herri Krossaren antolakuntza

Urriaren 14ean “Diario Vasco”-n Nerea Isastik idatzitako artikuluari erantzunez.

Akats, gaizki ulertze edo eta gezurrei buruzko antolatzaileen azalpena.

“Jesus Atxa Memoriala” herri krosa abenduaren lehenengo igandean egiten zen eta ez azaroan.

2003an azkeneko krosa antolatu genuen, gure herriko tabernari gehienek emandako diru laguntza eskuzabalei esker konpondutako arazo handiekin. Baina ez geunden prest ondorengo urteetan horrela jarraitzeko.

2004eko otsailean ondorengo proposamena egin genion Udaletxeari: 2.400 euroko diru laguntza, eta istripu eta erantzukizun zibilaren aseguru bere kargu, Udaletxeak dirua jartzen zuen eta guk lan desinteresatua. Gai honi buruz hitz egin zenean batzordean denei ondo iruditu zitzairen, baita arduradun politikoei ere. Baina denbora pasatu ondoren, Alkateak sinatutako eskutitz bat jaso genuen, bertan gure proposamenari EZE-TZA ematen ziotelarik. Urte hartan ez zen krosa ospatu.

Aurtengo Ekainean Udaletxetik dei bat jaso genuen. 2004-ko aurrekontutik

dirua soberan zegoen, eta esan ziguten diru horrekin krosa antolatu zitekeela. Berriz elkartu ginen, eta puntu berri bat aurkeztu genuen, ez genuen nahi “Atxa Memoriala”-ren ospakizuna Udaletxeak dirua izan edo ez izateak baldintzatzea. Orduan Udaletxeari eskatu geniona ondorengo da: Gobernu Batzordearen idatzizko konpromezua, legealdi hau bukatu artekoa, hau da 2005 eta 2006-rako. Udaletxeak ukatu egin digu idatzizko konpromezua. Ez gara hain harroak, eta ez dugu inori inongo epemugarik gabeko konpromezua eskatzeko asmorik. Beraz Diario Vasco-n Nerea Isastik idatzitako artikuluan jartzen duena gezurra da eta bere zuzenketa espero dugu.

Krosa antolatu ahal dugun bakarrak gu ez garela ere esaten dugu. Edozein pertsona edo pertsona talde datorren urtean (legealdi honetan) zer gertatuko den jakin gabe) krosa aurten antolatzeko prest badago, jakin dezala 2.400 euroko aurrekontua duela, baita istripu eta erantzukizun zibilerako aseguru ere.

Atxa Memorialaren antolatzailer taldea



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Garbitzaile lanpostu bat Bergarako Mizpirualde Zaharren egoitza. Bergarako Udalak deitzen du. **Baldintzak:** Eskolatze Ziurtagiria eta 1. hizkuntza-eskakizuna, ez derrigorrezkoa. Bergarako Mizpirualde Zaharren Egoitza Fundazio Publikoa aldi batez garbitzaile-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. **Epea:** 2005-11-07 Telefonoa: 943 779100.

Ikastaroa

Lokuzio eta autokontrola

Otxoki Irrati Tailerra. Lokuzio eta autokontrolako ikastaroak. Ikastaroak udazkenean eta neguan izango dira; oraindik ez dute data zehatzik. Ikastaroak elebidunak izango dira. Telefonoa: 943 322990

Haur eta gazteen astialdiko zuzendarri ikastaroa

Hezkide Eskola. **Baldintzak:** 21 urte izatea edo ikastaroan zehar betetzea. Astialdiko begirale-titulua izatea.

Tokia: Hezkide Eskolak Larraulen duen baserrian. **Epea:** azaroaren 4ra arte. Telefonoa: 943 311474 / 311475 **Prezioa:** 240,00 euro.

Pisua salgai Bergaran

Interesatuak gauko 9etatik aurrera deitu. Tel. 607497323 / 649820859

Pisua salgai Soraluzen

943852999

Pisua alokairuan hartuko nuke.

Mug. 620044691

Sukaldaria behar da pintxoak prestatzeko.

Ufala Irish Pub. 670541347

hildakoak

TERESA ARRILLAGA GOIKOETXEA



LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

Zer irizten dotsazu?

Azken egunetan, hegaztien gripearean kontua komunikabide garrantzitsuenetako lehenengo lerroetan dago. Aritu batzuen ustez, behi eroen gaitzarekin bezela gehiegizko ohiartzuna eman zaio, beste batzuek ordea gaixotasuna gizakietara pasatzeko arriskua badagoela diote. Dena dela, denak datoz bat gauden lekuan larritzeko arrazoirik ez dagoela esaterakoan.

Kezkatuta zaude hegaztien gripearekin?



Fermina Arriola
61 urte langilea

Hona ez da heldu momentuz, eta gainera ez dakit gauza asko gain honi buruz. Neurrixak ondo iruditzen jataz baina nik oilaskua erosten jarraitzen dot. Emoten dan informaziñua biharrezkua da gu informatuta egoteko.



Jose Agustin Jauntsarats
47 jubilatua

Ez nau kezkatzen urtero zoezer dago eta hau urte hontakua da, larregi bildurtu eragin dala uste dot. Hemen farmazeutikek etarako dabe nogoziua. Nik normal kontsumitzen dot oilaskua.



Dorotea Carrasco
60 urte etxeoandrea

Ni arduratuta nago, baina erosiko dot oilaskua hemen ez dago eta momentuz. Hartu dittuen neurrixak ondo dare, baina gauza gehixago egin ahal izango littuzkie. Kontu guzti honi bonbo larregi emon dotsela uste dot.



Jon Varela
16 urte ikaslea

Kezkatzen nau jente asko horregaittik hil dalako baiña ez dakit informaziño askorik horri buruz. Ez dakit ze neurri hartu diran hau gelditzeko baina nik oilaskua jaten jarraitzen dot.



Jon Heriz
19 urte ikaslea

Nik uste dot oindio ez dala hona helduko. Gaur egun len baino kontrolatuago dago kontua, eta uste dot konponduko dabela. Neri ez dosta ardura ze ez dot jaten oilaskorik.



Amaia Bolunburu
30urte abeltzaina

Nik ostrukak dauzkat eta larrittuta nago, gehixen gure osasunagaittik. Gu bakunatu gara gripe normaletik, beterinariñuak esan dosku badaezpada bakunatzeko.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO
tabernia

Telefonoa 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera



Aztibegia Irratia " herritarra eta aurrerazalea "

Joan den martitzenean, urriak 25, Paul Asensio eta Ihart Arluziaga Aztibegia Elkarteko ordezkariak Euskal Herria osotasunean aintzat hartuko duen irratia " herritarra eta aurrerazale " berri baten aurkezpena egin zuten kiroldegiko erakusketa gelan. Irrati berria hiru hizkuntzatan emitituko da eta Urruñan izango du egoitza zentrala, Asensioaren esanetan iparraldean "errezago da eta lizentziak es-

kuratzea". Aztibegia Elkartekoek herritarren babesak eskatu dute proiektua abian jarri ahal izateko, eta hilero 7 euro ordainduko duten 4.500 bazkide behar dituzte. Sorailuzen bazkide kanpaina erantzun ona jasotzen ari dela adierazi zuen Arluziagak. Irratiaren aurkezpen ofiziala azaroaren 15ean egingo da eta orduan emango dute jakitera irratia berriaren izena. Bazkide egiteko orriak tabernetan daude.

Uso eta arratoiaren garbiketa egin da urrian

Joan den urriaren 21ean aurtengo bigarren uso-harrapaketa egin zen herrian. 32 uso harrapatu ziren, sare bidez, uztaileko harrapaketa baino 2 uso gehiago. Hirugarren harrapaketa urtea bukatu aurretik egingo da. Usoen harrapaketa, katu eta txakur batzearekin batera, Udalak eta mankomunitateak es-

keintzen duten zerbitzua da. Arratoiak akabatze kanpainak, berriaz, 4 egiten dira urtean. Astelehenean, Udalak kontratatutako enpresa bateko langileek laugarrenez bota zuten pozoia herriko kale eta ibai inguruetan. Azkenaldian herritar askok salatu dute kalean arratoiak ikusi dituztela.

Liburuzain lanpostua lehia

Urriaren 24an egin zen liburuzain lanpostua lortzeko bigarren azterketa teorikoa. Lehenegora 24 lagun aurkeztu ziren, eta haietatik 17k gainditu zuten frogara. Bigarrenean 14 aurkeztu ziren, horietatik bi plazentziatarrak. Frogaren emaitzak astelehenean ezagutuko dira eta hurrengo azterketa, praktikoa, Azaroaren 4an egingo da.

Ikastetxeko jolastokia

Badira aste batzuk ikastetxeko jolastokia estaltzeko lanak hasi zirela. Azaroan lanak erabat amaituko omen dituzte.



Kexak autoa zaborrontzien aurrean aparkatzeagatik

Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, hainbat herritarrek zaborrontzi aurrean aparkatzen dituzte autoak gauetan, zaborbiltzaileen lana galeraziz. Zaborrak hurrengo egunera arte geratzen dira ontzietan, gauz ez baitaude udaltzainak autojabeak identifikatu eta autoa mugiarazteko.

KREA
Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI
Tel.: 635731268

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Jubilatuen Hilabetea izango da azaroan Itxaropenan



Urtero bezala, Jubilatuen Hilabetea ospatuko dute azaroan zehar jubilatuen etxean. Hilaren 14tik 18ra bitartean mus, tute, truk eta briska txapelketak jokatuko dira. Saribanaketa 18an izango da. Hilaren 26an, berriz, 80 urtetik gorakoen-

dako bazkaria emango da, jubilatuen egoitzan bertan. Urtero 70 lagunetik gora elkartzen dira. Txapelketarako zein bazkaritarako izena barran edo bulegoan eman daiteke. Horrekin batera hil hone-tan kobratuko da urteko kuota.

PESAko autobusak, ordua baino lehenago



Hainbat herritarrek adierazi digutenez, semaforoak kendu dituztenetik autobusa ordua baino lehenago iristen da geltokira, eta askotan ordua baino lehenago alde egiten du.

Udala eta Errekalde 24-26ko bizilagunen arteko bilera

Joan den astelehenean, hilak 21, Errekalde 24-26 zenakietako etxe berriak erosi zituzten bizilagunen ordezkaritza bat Udal-etxean izan zen etxeen egoeraren berri jakiteko. Eskrituren sinadura azaroaren 7an da egitekoa, baina Udalak oraindik ez ditu etxeak habitagarri izendatu, bizilagunei dierazi zenez, Probesna konstruktorak ez baititu oraindik agindutako guztiak bete. Bizilagunek ez dute eskriturarik sinatuko aipatu baimena lortu bitartean.



ODOL EMAILEI OMENALDIA
Urriaren 22an Debabarreneko hainbat Odol Emaileri Omenaldia eskeini zieten Arraten. 25 Aldiz edo gehiagotan odola eman dutenak omendu zituzten. Argazkian omendutako soraluzetarrak.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

 **Desing**

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Udaleko eta Aldundiko ordezkariak: Azkoitia (Lurralde Antolaketakako Zuzendaria), Aldazabal Hirigintzako zinegotzia, Gonzalez de Txabarri (Gipuzkoako Diputatu Nagusia), Gabilondo (Soraluzeko Alkatea), Oyarbide (Garapen Jasangarriaren Zuzendaria) eta Javier Zuriarrain (Errepide eta Azpiegiturak).

Foru Aldundiak 3 milioi hirigintzarako

Joan den urriaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia Jose Juan González de Txabarri eta departamentu desberdinetako ardura-dun eta teknikariak Plazentziara

etorri ziren Udal Gobernuako ordezkariekin biltzera. Gai desberdinak zeuden eztabaidatzeko: Urkulutik Eibarrerako ur-trasbasearen ibilbidea (ezinbestean gure herritik egingo

dena) alde batetik eta herriko zenbait premia estruktural bestetik. Bilera labur baten ostean, Oscar Gabilondo alkateak eta Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak prentsurrekoa eskeini zuten. Foru Aldundiak 3 milioi euroko inbertsioa egingo du Aldundiak Hirigintza Hartutako erabakien berri eman zuten prentsurrekoan. Lan guztiak 2006. urtean amaituko direla agindu zuten Diputazioko ordezkariak.

PROIEKTUAK



SAGAR ERREKAKO BIDEGURUTZEA

Sagar Errekatik Poligonora doazen kamioi eta trailerrek oztopo haundiak dituzte Sagar Errekako zubipetik ezkerretara jo eta errepide nagusian sartzeko. Arazo hori konpontzeko rotonda faltsu bat jarriko dute bidea ibai alderuntz nasaituz. Aurrekontua 0,6 milioi eurokoa da.



KIROLDEGIKO TXAPELA ETA BARREN PLAZA

Kiroldegi gaina estali eta erabilpen anitzetarako barren Plaza bat egingo du bertan Foru Aldundiak. Lanak egitean zinemako zapaila konponduko da eta Udalak zinema konponduko duela agindu du. Aurrekontua 0,5 milioi eurokoa da.



ELIZA KONPONTZEKO DIRULAGUNTZA

0,5 euroko dirulaguntza emango du Diputazioak Santa Maria La Real parrokiako konpontzeko. Parrokiako Juntak proiektua 1,4 milioi eurotako proiektua dauka.



UR TRASBASEA

Eibartik Urkulurako ur trasbasea, inoiz eibartarrak urrik barik geratuko balira ere. 1,4 milioi euroko aurrekontua du obra honek Olako Zubia, Errekalde Atxuri, Rabal Baltegieta Sagar Erreka eta hendik gora, Eibarrera bidean.



SORALUZeko ALKATEA

Oscar Gabilondo

Zela antolatu zan Diputauakin euki zenduen bileria?

Problema desberdinak juntatu dira: Kirodegiko eta elizako konponketak alde batetik eta euren ur-transbasiakin lehenbaitlehen hasteko biharra bestetik. Sagar Errekako bidegurutzian arazua be aztertu genduan. Komenigarrixa ikusi genduan eurak Plazentziara etortzia, bertatik bertara ezagutzeko hemengo arazuak; hortara etorri ziran. Erabagixak nahiko hartuta zeuzken etorri ziranerako.

Urkulutik Eibarrerako ur-transbasia egiteko 3 ibilbide proposatu zotsuen.

Proiektu bakarria ekarri zebe hasieran, bide barrixa apurtzia; baña proiektu hori 92kua zan, artian bide barrixa egitteke zeguanekua. Gero beste bi: Bidegorritik-Santa Ana-Gila zubixa-Baltegieta-Sagar Erreka

bata eta Olako zubixa -Errekalde-Atxuri-Rabal-Baltegieta-Sagar Erreka bestia.

Zuek proposamen berriak egin zenduzen.

Guk hiru proposamen: ibetondotik eruatia ura, bariantetik bestia eta tranbian bidetik hirugarrena. Ibetondotik ezingo da eruan, itxuria 2010. urtera atzeratu dalako saneamentua; tranbian bidetik bez 2010 a baino beranduago hasiko diralako proiektuakin eta bariantetikan ura eruatia ez ei da normatiba barruan sartzen.

Eta azkenian?

Azkenian Bidegorritik-Olako zubixa-Errekaldia- Atxuri-Rabal-Baltegieta-Sagar Erreka ibilbidia jarraituko dau seguruen. Tramo guztiak dira txarrak guretao biña hau egiteko errezena eta azkarrena

da. 1,4 milioiko aurrekontua eukiko dau.

Ze kalte eragingo dau herrixan?

6 hilabetian molestia haundixak izango dittugu. Gure lehenengo asmua urtarrillian hasi eta uztailian bukatzia da, jaixak aurretik, baña oindiok ondo aztertu bihar dogu. Zatika egin biharko da, Zaharren Egoitzarako pasua libre laga bihar da eta.

Kiroldegixan ze obra egingo da?

Kiroldegi gaina txapel estetiko batekin estali eta barren plaza bat egingo da bertan, erabilpen askotarikua. Oindiok pentsatzen gabiz ze modutara jarri haura, mahaixekin eta. Dandako moduko sarbide egoki bat bat be pentsau bihar da. Plaza hau egin ahal izateko zineko tetxua konpondu bihar dabe eta gero Udalak zineko lokala konpontzeko asmua dauka. Aurrekontua egin doskue, eta 50 bat milioi pezetatan geratuko da.

“Kiroldegi gaina txapel estetiko batekin estali eta barren plaza bat egingo da bertan”

Oin kapillan egiten diran kultur ekintzak zinian egingo dira aurrerantzean?

Hori da gure asmua. Ez da bakarrik zinia izango, lokal polibalente bat izango da: konferentziak, ekitaldixak, antzerkixak etabar egin ahal izango dira bertan.

Ze eritzi dauka Udal Gobernuak presak kentziaren inguruan?

Gure pensamentua da presak konserbatzia. Proiektu serixo bat ikusten dogunian eta teknikoki konbenzitzen bagaittu, orduan ikusiko dogu, baina ez da erreza izango. “Uholde arriskudun Eremuak” dirala diñue, baña zenbat dira holakuak? Urte guztian dago arriskua? Merezi dau arrisku horregaitik presak kentzia? Ez dago argi gauzia. Hala ta be guk EZ haundi bat ezingo dogu esan.



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

“Poltsikoko Ikuskizunak” azaroan Kapillan



Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arribe.

Soraluzeko Udaleko Kultura sailak Poltsikoko Ikuskizunak zikloa antolatu du azarorako. Lau kultur ikuskizunek osatzen dute zikloa. Musika da lehendabiziko edizioko protagonista nagusia, baina antzerkia eta prestidigitazioak ere badute tokirik. Argazkian ageri diren Maddi Oihenart abeslari zuberotarrak eta Josetxo Goia-Arribe saxofoijole nafarrak irekiko dute zikloa, azaroaren 4an.

„Ilhargi-min” ikus-entzugarria eskeiniko dute. Azaroaren 11n berriz, „Nora hoa neska?” izeneko komedia eskeiniko digute Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz aktoreek. Magia azaroaren 18an jabetuko da kapillaz, Bemagic ikuskizunean, eta zikloa amaitzeko, musika izango dugu berriz ere, azaroaren 25ean Jose Mari Anduagaren eskutik, . Emanaldi guztiak kapillan zaingo dira

Fernan Oregik Bergarako Rallyan irabazle

Fernan Oregi soraluzetar argazkizaleak Bergarako Udalak antolatu duen Rallya irabazi berri du. Jaietako egun bakarrean ateratako argazkiak izan dira lehiaketako gaia eta Fernanenak izan dira gustokoenak. Eibarko Rallyan ere 2. gelditu zen orain bi hilabete.

Gaztañerre Azoka azaroaren 12an

Azaroaren 12an egingo da X. Gaztañerre Azoka. Urtero moduan, baserritar, ganadu eta artisauen azokarekin batera beste hainbat ekitaldi ere izango dira egun horretan. Pil-pileanek esaterako, Baba Txapelketa eta Herri Babajana antolatuko ditu. Izena emateko epea zabalik dago Pil-pileanera deituta edo Gila, Gaztelupe, Edurtza, Txoko eta Arrano tabernetan. Azpimarratzekoa da bestalde, egun horretan baserritarrez jantzita ibiltzeko deia egun duela euskara elkarteak.

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze






MAKINA BEREZIAK
LERRU AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendola industrialdea, 14-5 - Tel. 943 75 18 91 - Faxa 943 75 24 58 - 20590 SORALUZE - PLACENCIA (Gipuzkoa)



SALAZAR
Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

Carme Canela Trio

JAZZ MUSIKA TALDEA



<<Jazzaren
alderdi
inprobisatzailea
ezagutzeko
aukera izango
du gu ikustera
datorrenak >>



Giulia Valle, Elisabet Raspall eta Carme Canela.

Debajazz Debabarreneko Jazzaldiaren II. edizioa gaur (hilak 29) iritsiko da Plazentziara, Carme Canela Trio-ren eskutik. Bartzelonako hirukotea proiektu berri bat egiteko elkartu da: soilik emakumeek konposatutako musika jotzeko. Gaur gauean aurkeztuko digute, 22:15etan kapillan.

Zein musikari etorriko dira zurekin Carme?

Elisabet Raspall pianojolea eta Giulia Valle kontrabaxujolea. Biak ala biak jazz konposatzaile entzute-tsuak Katalunyan

Ohizkoa al da emakumez osatutako jazz talde bat?

Jendearendako arraroa da, batez ere emakumezko bat kontrabaxua jotzen ikustea, baina gero eta emakumezko gehiago ari da mundu honetan sartzen.

Ba al daukazue proiekturik hirukote bezala?

Larunbatean Soraluzean aurkeztuko dugunarekin ari gara. Proiektu ho-

netan, soilik emakumezkoek konposatutako musika interpretatzen dugu: Joni Mitchell eta Abbey Lincoln-enak, esaterako edo baita gureak ere, Giulia eta Elisabeten tema originalak, katalanez.

Gonbidatu itzazu Plazentziatarrak zuen kontzertua entzutera joateko

3 emakume musika egiteko elkartuko gara, 3ak musikaren eta eszenatokiaren jokoan partaide. Kuriositateagatik bada ere, etor daitezela. Interesgarria iruditzen zait jazzaren alderdi inprobisatzailea ezagutzeari.

Zein da jazzaren egoera Katalunyan? Hemengoak ezagutzen al duzu?

Ez dut hemengo berri, baina hemengo jazz musikari asko ezagutzen dut Bartzelonan bizi dena. Bartzelonan maila handiko musikariak daude. Kanpotik etortzen dira asko, EEBB etatik ere bai, eta horrek jazzaren barruan fusioak egiteko aukera ematen du. Maila handiko jazza egiten da Bartzelonan. Ez dakit medioak ohartzen diren, edo promotoreak, baina hala da.

Bizitzeko lain ematen al du jazzak?

Etxe bat eta auto bat erosi nahi badituzu, lana egin beharra daukazu musika jotzeaz gain. Musikari askok musika eskolak ematen ditugu.

Jazz musikari bat?

Wayme Shorter.

Munduko musika bat

Brasileiroa.

Ileak latz jartzen dizkizun kantu bat?

Joni Mitchell-en "Both Sides Now".



kutxa

gizarte ekintza

Bolia
taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze



Sora makal hasi da

Hasiera kaxkarra eman dio denboraldi berriari Soraluze futbol taldeak. Orain arte jokaturako 5 partiduetan garaipen 1, berdinketa 1 eta 3 porrot bat eskuratu dituzte talde nagusiko jokalariek. Azpimarratzekoa da gol asko ari direla jasotzen

denboraldi hasi berrian, 8 azken 2 partiduetan. Une hauetan sailkapeneko azkenaurreko tokian daude, 4 punturekin. Zapatu honetan Aretxabaleta liderraren bisita jasoko dute Ezoziko Futbol zelaian. Partidua 16:30etan hasiko da.



Soraluze F.T.ko erregional taldea.

Desadostasunak Atxa Memorialaren inguruan

Aurten ere desadostasunak izan dira Atxa memorialaren antolatzaileen eta Udalaren artean. Antolatzaileek agiri bat kaleratu dute DV-n gai honen inguruan argitaratu zen informazioa okerra zela salatuz. Agirian azaltzen dute, idatzizko konpromezua eskatu ziotela Udalari le-

gealdi honetan (2005-2006 urteetan) Atxa memorialaren ospakizuna berma dadin eta ezezkoa jaso zutela. Badiolak dioenez berak ez du legealdi honetarako idatzizko konpromezurik ukatu, datozen legealdiatarako baizik. Oraingoz aurtengo edizioa ez da antolatuko.

EMAITZAK

ESKU PILOTAN

JAUREGI

DV txapelketan
Olazabal - Jauregi 22
Oñatz Gonzalez - Lopez 16

Gipuzkoakoan

Zabala - Jauregi 12
Belloso - Oteiza 22

ATXOTEGI

Gipuzkoako txapelketan

Atxotegi - Portu 22
Agirre - Zabalaga 19

DV txapelketan

Atxotegi - Linzoain 22
Aitor Jauregi - Nuñez 17

FUTBOLA

Sora 2 - Eibartarrak B 4 (erreg.)
Jubenilek atsedena dia
Sora 2- Eibartarrak 12 (kad.)

AJENDA

PELOTA

Sora-Aretxabaleta (erreg.)

Zapatuan 16:30

Sora-Axular (jub.)

Zapatuan 11:45etan

Ilintxa-Sora (kad.)

Zapatuan 11:30etan

MENDIA

Urkiolamendira (1.011m)

Azaroaren 6an

Atxarten



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Limpiezas MEN



Era guztietako garbiketak

Bulegoak - Komunitateak

Atariak - Garajeak

M. Carmen Alonso 690792816

Telefonoa 943753079 - 20590 Soraluze



SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



JATETXEA TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Sara Goenaga Estankoko langilea

Datorren urtean martxan jarriko den tabakoaren lege berriaren inguruan eztabaida handia sortu da gizartearen. Tabakoaren inguruan ze mugimendu dabilen jakin nahian jo dugu Sara Goenaga, herriko estankoko saltzailearengana. Kontatu digunez, mugimendua badago eta handia, batez ere tabako marka eta prezioetan.



BERTSO BEGIZ

Gaztiak eta zaharrak alkarren onduan ipintzen ditudan afizio askorik ez dago munduan. Lege berrixa martxan ipinitakuan ezingo danez betiko txokuan... erre al izango da estanko barruan?

NEKO

Doinua: Asteburu aldera

Sara Goenaga, tabako saltzailea.

Jaioterrixa?

Soraluze

Adina?

43 urte.

Zenbat denbora daroiazu tabako saltzen?

7 urte eta erdi.

Zein tabako mota erosten da gehixen?

Rubixua. Oin joera nagusixa da puru txikixak erretzia; batzuk aromatikua... Bezero bat bakarrik daukagu pipia erretzen dabena.

Izan da aldaketarik azken urtetan?

Bai, batez be azkenengo bi urtietan aldaketa haundixa egon da. Tabako mota berri askok urten dau aurten.

Konpetentzia haundixa dago eta oso gogor dabiz. Oin pakete merkia-guak urten dabe.

Zein da merkiena eta zein garestixena?

Momentu honetan merkiena tabako beltza da, alemana, 1,20 eurotan paketa. Bestiak bi eurotik gora balio dabe. Garestixenak purua da, haba-nuak 11 euro balio dittu.

Ze diferentzia dago tabako merketik garestira?

Nik ez dot erretzen eta ez dakit. Bakoitzak bere gustuak dauzka.

Jende gaztiak ala adinekoak erosten dau gehixao?

Jente gazte asko etortzen da baina zaharrak bebai. Andrazkuak eta gizonzkuak. Jente nagusixak farias eta holakuak erosten dittu gehixao eta gaztiak rubixua eta liatzekua gero eta gehixao.

"Tabako mota berri askok urten dau aurten, konpetentzia haundixa dago eta gogor dabiz"

Jente askok laga dotsa erretziari azken urtietan?

Jente asko ahalegintzen da lagatzen baina batzuk berriro jausten dira. Paketietan "eskelak" ipini zittuen baina poliki poliki normala bihurtu da.

Ze eritzi daukazu datorren lege barrixaren inguruan?

Ni ez naiz erretzailia. Neri tabernetan erretzia debekatzea pasada bat pentsatzen jata. Beste leku batzuetan bai, jatetxian, hospitalian... Baina zeinek kontrolatu bihar dau hori?


Kontsumua jeitsiko dala uste dozu?

Igual zeozer bai baina ez asko. Debe-katutakuan badakigu zer pasatzen dan.

Kinielak egiteko aukera be badago. Zein da emon dozuen saririk haundixena?

Saririk haundixena 8 miloi pezetakua izan da. Hemen be egon dira aldaketak. Len lau joku zeren bakarrik eta oin zortzi dare; Kingol, Euromillon eta beste bi zaldi karrenak.

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipirolak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
kondinatua
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Argazki zaharra




Iturria: Emilita

Parrokiko Abesbatzako "Tipliak"

1943ko abuztuaren 22xan Ezozi-ko Plazan etaratako argazki-xa. Abesbatzako gaztiak ageri dira, Don Aniceto eta Don Juan Zugasti musika irakaslien zuzendaritzapian kontzertua emon ostian.

Goixan; Don Aniceto Zugasti (+), Ramon Mugica, Alberto Churruca (+), Don Juan Zugasti (+). Erdixan; Jose Olamusu, Fernando Lasa, Alberto Gallastegi, Alberto Lersundi, Xabier Iñurrieta (+), Vicente Olaizola, Ramon Bereicua, Javier Elgeta, Luis Eguren (+), Antton Oregi (+). Behean; Javier Galarraga, Juan Carlos Arana, Jose Ignacio Galarraga, Gonzalo Gallastegi, Antton Leturiondo (+), Juan Mari Altuna, Manolo Mougán, Javier Gallastegi eta Juan Carlos Gallastegi.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?



*Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!*

Deitu

943 75 13 04 ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

*Aurreko
alean...*



ERANTZUNA
Gabolazko zubixan
erdiko zutabia soberan

IRABAZLEA
Marina Alberdi



**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarrineri 22 behean, telf: 943751780

FER.

**S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Pedri Letek lau lagunendako bazkaria irabazi zuen Armendin.

On egin deizuela!
 Bhotzez eskerrik asko
 danori laguntziarren

J A I X E T A K O Z O Z K E T I A

HONAKOAK IZAN DIRA SARIDUNAK

Asteburua Debako Kresala Talasoterapian
 Asteburua Lasturko Arrasketa Landetxean
 Gaua Bergarako Lamaño Landetxean
 Txurrukan 4rendako afaria
 Armendin 4rendako bazkaria
 Mendatan 2rendako afaria
 Edurtzan 4rendako afaria
 Javier Alberdineko txuletak
 Iñaki Iñarraneko txorixoak
 Begoña Txurrukaneko urdaiazpikoa

Iñaki Etxabe
 Endika Goyogana
 Mariasun Urizar
 Maria Ariznabarreta
 Pedri Lete
 Itziar Agirre
 Ane Muro
 Kontxi Gabilondo
 Eñaut Unamuno
 Arantxa Mendikute



**Hautserriko
 Galtzagorriak
 Jai Batzordea**

Gainerako sariak (Txokoko afaria, Juan Marineko arrainak, Mari Mar-en oilaskoak, Ohitxurrineko arduak) eman gabe gelditu dira.

Doan BERRIArekin

Pirritx eta Porrotx
 familien
 karta-jokoa



*Azaroaren 5etik
 aurrera*



Euskaldunok behar dugun **berria**



Bertso flanbeatuak!

Jon Maia eta Miren Artetxe

Larreategi anai arrebak
trikitixarekin



Azaroaren **5** ean

MENUA

- entremesak,
- entsalada/sopa,
- sahieskia labean/lasaña begetala,
- pastela, kafea eta kopa.

PREZIOA

15 €/12 € (bazkide, langabetu eta ikasleendako)

Antolatzailea

Pil-pilean Euskara Elkartea



Laguntzailea

Soraluzeko Udala



Izena emateko

943 75 13 04 edo
pilpilean@euskalnet.net

Ilhargi - min
M U S I K A

Maddi Oihenart & Joxetxo Goia-Arabe

azaroak *noviembre*
ostirala *viernes*

4

Tokia *lugar*: Kapilla
Ordua *hora*: 22:15

Nora hoa, neska?
A N T Z E R K I A

Edurne Agirrezabala & Begoña Amonarriz

azaroak *noviembre*
ostirala *viernes*

11

Tokia *lugar*: Kapilla
Ordua *hora*: 22:15

Momentos mágicos
M A G I A

Iñigo Sáenz de Urturi

azaroak *noviembre*
ostirala *viernes*

18

Tokia *lugar*: Kapilla
Ordua *hora*: 22:15

Bizitza bera
M U S I K A

Joxe Mari Anduaga

azaroak *noviembre*
ostirala *viernes*

25

Tokia *lugar*: Kapilla
Ordua *hora*: 22:15



Soraluzeko udala



gizarte ekintza
obra social



DOHAIN